


Kostuen kontabilitatea

EAZ Gradua: bigarren ikasturtea

Irakaslea: Gotzon Garmendia Aldasoro

Azterketa (2019ko ekaina)

**Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
EHU**



Egilea: Beñat Zunzunegi

Ebazpen estraofiziala:
egileak eta Gizapediak
ez dute ebazpenaren zuzentasunari buruz
inongo ardura bere gain hartzen.



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

Teoria

Arrazoitu itzazu erantzun guztiak.

(1) Aipa ezazu kontzeptu hauek gastuak ala kostuak diren, eta biak ala biak izatekotan, kopuru berdina ala desberdinagatik:

Kontzeptua	Finantzarioan	Kostuetan	Azalpenak
Enpresaren kargurako Gizarte Segurantza			
Telefonoa			
Produktu bukatuen aurrez kalkulaturiko gutxiketak			
Merkatal eragiketengatik baliogalera			
Lehengaien erosketak			
Sozietateen gaineko zerga			
Argindarra			

(2) Aipa ezazu kostu hauek aldakorrak, finkoak edo mistoak diren eta era berean zuzenak ala zeharkakoak diren sailekiko eta produktuekiko.

Kontzeptua	KA	KF	KMis	KZuzSail	KZehSail	KZuzProd	KZehProd	Azalpenak
Jerentearen soldata								
Prod. bukatuen biltegiko alokairua								
Telefonoa (kuota finkoa gehi kontsumoa)								
Lehengaien kontsumoa								
Saileko makinaren amortizazioa								
Saileko langilearen Gizarte Segurantza								

(3) Zer dira kostu ekidingarriak eta kostu ekidinezinak? Zertarako du balio du bereizketa horrek?

- (4)
- Aipa ezazu lehengaiaren aldeko desbideraketa teknikoa sor dezakeen kanpoko arrazoi bat.
 - Aipa ezazu eskulan zuzenaren aldeko desbideraketa ekonomikoa sor dezakeen kanpoko arrazoi bat.
 - Arrazoitu itzazu erantzunak eta aipatu nola eragingo dioten datorren ekitaldiko kostu estandarraren ezarpenari.
 - Gida aurrekontuaren eskema eta azaldu aurrekontu garrantzitsuenak egiterakoan jarraitu beharreko ordena.

Praktika**Lehenengo ariketa: kostu historikoak**

Hotel batek bere gela bikoitzek dituzten kostu eta emaitza aztertu nahi ditu.

Garai altuko hilabete bati dagozkion datuak (eta beharrezkoak diren beste datu batzuk):

- Gehieneko jarduera: 50 gela \times 30 egonaldi/hilabete = 1500 egonaldi/hilabete.
- Jarduera normala: 100 egonaldi/hilabete.
- Benetako jarduera aztertutako hilabetean: 1400 egonaldi.
- Erabilitako gela eta egun bakoitzeko kostu aldakorra (argindarra, ura, garbiketa): 15 €.
- Gelaren hilabateko kostu finkoa: 10.000€.
- Geletako merkatal kostuak: 13.000€.
- Geletako administrazio kostuak: 12.000€.
- Gelen sarrerak: 70€ gela eta eguneko (BEz kanpo).

Eskatzen dena:

- (a) Egitura funtzionala eta kostu finkeen egozpen arrazionala, jarduera normalarekiko jarraituz. Gelako kostua kalkulatu eguneko.
- (b) Egitura berdinen arabera, marjinak eta emaitza kalkulatu.
- (c) Emaitzari buruzko hausnarketa: emaitza berdina izango al zen beste kostu eredu batekin. Arrazoitu.

Lehenengo ariketaren ebazpena

(a) eta (b) atalak

$$\text{Egozpen arrazionalako koefizientea} = \frac{\text{Jarduera erreala}}{\text{Jarduera normala}} = \frac{1400}{1000} = 140\%$$

Esleitu beharreko kostu finakoak beraz, $10,000 \times 1.4 = 14,000 \text{€}$ izango dira, eta egonaldi bakoitzeko $14,000 / 1.400 = 10 \text{€}$. Esleitzen diren 4000€ -ko kostu finko gehigarriak gainjardueratik konpentsatuko dira emaitzetan.

Gela eta eguneko kostua (egonaldiko kostua) kostu aldakor eta finkoen batura da: $10 + 15 = 25 \text{€}$.

	Egonaldiak	Zenbatekoa	Totala
Sarrerak	1.400	70	98.000
– <i>Kostu aldakorrak</i>	1.400	15	-21.000
– <i>Kostu finkoak</i>	1.400	10	-14.000
Marjin gordina	1.400	45	63.000
			– 13.000 (<i>merkatal</i>)
			– 12.000 (<i>administ.</i>)
			+4000 (<i>gainjarduera</i>)
			Emaitza=42.000

(c) atala

Egozpen arrazionala aplikatu dakioken beste ereduia full-cost edo kostu osoa da. Horren arabera, azken emaitza berdina izango litzateke, baina egonaldi bakoitzeko kostua hnadiagoa litzateke, merkatal eta administrazio kostuak ere sartuko liratekeelako, eta gainera gainjarduerazko koefizientearen bitartez gehiturik.